

Komunikazio proiektuen arduraduna

Komunikazio proiektu desberdinen ardura hartuko duen kide berri baten bila ari gara.



Eskatzen dena:

- Kazetaritza, publizitate, ikus-entzunezko komunikazio edo marketin arloko ikasketak.
- Komunikazio kanpainen sormena gidatzeko eta diseinu taldearekin batera elkarlanean aritzeko gaitasuna.
- Komunikazio proiektu desberdinen ardura eramateko gaitasuna: erabakiak hartzeko, irizpideak ezartzeko, bezeroekin koordinatzeko, harremanetarako...
- Komunikazio estrategiak definitu eta diseinatzeko gaitasuna (komunikazio planak).
- Kudeaketa, planifikazio eta harremanetarako gaitasuna.
- Komunikazio plan, kanpaina eta ekintzen exekuzioan esperientzia: hedabideekin harremanetan, community manager zereginetan, bilera parte-hartzaileak dinamizatzen, diskurtsoen hedapenean, euskarrien diseinuan, bideoen gidoigintzan, podcast gidoiak, esatari lanak...
- Euskararen goi mailako ezagutzak (C1 edo C2 mailakoak).
- Euskaigintza (hedabideak, euskal kultura...) sektorearen ezagutza.
- Berehala lanean hasteko prestutasuna.



Honako ezaugarriak kontuan izango dira:

- Webgune eta aplikazioen informazio arkitektura antolatzeko gaitasuna eta esperientzia (UX).
- Irudien oinarrizko sormen zein aldaketa lanak egiteko gaitasuna: Adobe Photoshop, Illustrator, Canva...
- E-posta marketin-erako ezagutzak: MailChimp edo antzerako softwareak erabiltzen esperientzia, datuen babeserako legea, datu-baseen kudeaketa...
- Ingelesaren ezagutza (ahozko maila zein idatzia).



Eskaintzen duguna

- Lanaldi osoko kontratua.
- Proiektu bizi bateko eta diziplina anitzeko lan-talde batean integratzea.
- Ordutegi malgua eta eredu mistoa: presentziala eta telelana.
- Euskara, software librea, parte-hartzea eta berdintasuna ardatz dituen lan-ingurunea.



Interesatuta?

Bidali zure curriculuma "Komunikazioa" erreferentzia adieraziz **curriculum@iametza.eus** helbidera otsailaren 28a baino lehen.

lametza: euskarazko komunikazio integrala, gertukoa eta jasangarria